

2018ko apirila

ORHI proiektu europarra % 65ean Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatuta dago eta Interreg V-A Espainia - Frantzia - Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren baitan gauzatuko da. Proiektua 2018ko urtarrilean hasi zen eta 2020ko abendura arte iraungo du.

ORHIk POCTEFAREN mendebaldeko eremuan (Espainia-Frantzia-Andorra) enpresen arteko sinergiak garatuz nekazaritzako elikagaien industriari balioa eman nahi dio. Bere helburua

Teknologia Berritzaileen eta Negozio Eredu berrien

nazioarteko eta mugaz gaindiko identifikazioa da, enpresetan materia organiko eta plastiko fluxuen balio erantsiko erabilera berriak sustatu eta hauen baliatze eraginkorra bultzatu dezaten.



Apirilaren 10 eta 11an proiektuko kide guztiak Pauen batu ziren 3. ekintzari hasiera emateko helburuarekin. Ekintza hau agitzio metodologia batean formakuntza jasotzean datza, nekazaritza elikadura sektorean, enbalajearen eta sektorearen industria osagarrietan emango diren ikastaroetan erabiltzeko.

Metodologia horrek sektoreko enpresen artean sinergiak identifikatzea ahalbidetuko du, enpresa parte hartzaileek dituzten hondakin eta gaitasunak identifikatu eta beste enpresa parte hartzailearen batek izan ditzakeen beharrekin gurutzatu edo lotuz.

Bestalde, momentu honetan Azaro Fundazioa lurraldearen karakterizazioan ari da lanean. Hori dela eta sektoreko enpresa eta elkarteekin batuko da informazioa eta datuak jaso eta proiektuaren helburuei erantzuna emateko.